

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 294/2023 Foru Agindua, maiatzaren 5koa, honako eredu hau onestea: 593 eredu onestea ("Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zerga. Autolikidazioa"), eredu hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzea, eta arautzea nola inskribatu behar diren lurralde erregistroan hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zerga ordaindu behar dutenak

Apirilaren 4an 9/2023 Legea, maiatzaren 23koa, argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen du.

Indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 34 quater artikulua arabera, hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergen Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen arau substantibo eta formal berak aplikatuko dira. Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorten eta sarrera ereduak onetsi ahal dituzte (eredu horietan lurralde erkideko ereduak datu berak agertu behar dira, gutxienez), eta likidazio aldi bakoitzean sarrerak egiteko epealdiak ezarri ahal dituzte (funtsean ez dira izango Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak).

Zerga hau Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du zergaren kargapeko hondakinak uzten diren hondakindegia edo errauste instalazioa Arabako Lurralde Historikoan egonez gero.

Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga 7/2022 Legeak sortu zuen (7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa). Horren arabera, zeharkako zerga honek hondakinak kargatzen ditu, hain zuzen ere kudeaketa eragiketen bidez hondakindegietan ezabatzeko uzten direnak edo errauste instalazioetara ezabatzeko edo energia sortzeko eramaten direnak.

Foru agindu honen bidez arautzen da nola eskatu behar den zergapekoen lurralde erregistroan inskribatzeko, eta autolikidazioaren eredu onesten da.

Horregatik, eta dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 593 eredu onestea

593 eredu ("Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zerga. Autolikidazioa") onesten da. Foru agindu honen I. eranskinean dago.

2. artikulua. 593 eredu aurkeztu behar dutenak eta horretarako epealdiak

Bat. Zergadun baten edo batzuen ordezkari diren subjektu pasiboek egutegiko hiruhileko bakoitzean sortutako kuoten autolikidazioa aurkeztu behar dute hiru hilean behin, eta, gainera, horren ondoriozko zerga zorra ordaindu behar dute.

Bi. Likidazio aldi bakoitza (hiruhilekoa) amaitzen den hilaren ondoko hileko lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da 593 eredu, bai eta, behar denean, zerga zorra ordaindu ere. Salbuespena: urtarileko aurkezpena eta ordainketa hilaren 31ra arte egin ahal izango dira.

3. artikulua. Nola inskribatu hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zergaren lurralde erregistroan, eta inskripzio txartelaren onespena

Bat. 95.4 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz, jarduera egiten den establezimendua dagoen tokian zerga bereziak kudeatzen dituen bulegoari dagokion lurralde erregistroan inskribatzeko eskatu behar dute:

a) Hondakinak ezabatzeko uzten diren hondakindegia baimendu publiko zein pribaturen bat kudeatzen duten pertsonak zein entitateek.

b) Hondakinak ezabatzeko edo energia sortzeko uzten diren errauste instalazio baimendu publiko zein pribaturen bat kudeatzen duten pertsonak zein entitateek.

c) Hondakinak ezabatzeko edo energia sortzeko uzten diren baterako errauste instalazio baimendu publiko zein pribaturen bat kudeatzen duten pertsonak zein entitateek.

Bi. Aurreko apartatuan aipatzen diren zergapekoek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte erregistroan inskribatzeko eskaerarekin batera:

a) Ordezkaritza modura ari bada, ordezkaritzaren frogagiria.

b) Egingo den jarduera, inskripzio eskera eragiten duena, azaltzeko memoria; bertan zehaztu behar da zer epigrafe daukan jarduerak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

c) Jarduera egiten den establezimenduaren identifikazioa eta deskribapena.

d) Sektorera araudian ezartzen den dokumentazioa, inskripzio eskaera eragiten duen jarduerarako ezinbestekoa denean.

e) Zergadunen ordezkoek ziurtagirien bidez frogatu behar dute pizatzeko sistemak behar bezala homologatuta daudela, apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 95.7 artikuluan xedatzen duen bezala.

Lurralde erregistroan inskribatzeko eskaera jarduerari ekin baino lehen aurkeztu beharko da modu elektronikoan Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Hiru. Eskaera jaso eta espedientea izapidetu ondoren bulego kudeatzaileak zergaren lurralde erregistroan inskribatzea erabakiko du, bidezkoa bada.

Inskripzioaren erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrekin batera inskripzioa egiaztatzen duen txartela bidaliko zaio. Txartelean hondakinaren identifikazio kodea (HIK) agertuko da. Kode hori agindu honen 4. artikuluan arautzen da.

4. artikulua. Hondakinaren identifikazio kodea

Bat. Hondakinaren identifikazio kodea (HIK) artikuluko honen 2. apartatuan ezartzen moduan eratzten da. Beraren bidez hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroan inskribatuta egon behar direnak identifikatzen dira.

Bi. Kodeak 13 karaktere dauzka, honela eratuta:

a) Lehen bi karaktereak ES dira.

b) Ogasun Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak ordezko beste batzuk erabiltzea xedatzen ez duen bitartean hirugarren, laugarren eta bosgarren karaktereak zeroak izango dira.

c) Seigarren eta zazpigarren karaktereak inskripzioa egiten den bulego kudeatzailea identifikatzen dute.

d) Zortzigarren eta bederatzigarren karaktereak jarduera identifikatzen dute jarduera-gako hauen jarraikiz:

RV: Hondakinak desagerrarazteko eragiketak egiten dituen zabortegi baimendua, titulartasun publikokoa edo pribatukoa.

RI: Hondakinak errausteko instalazio baimendua, titulartasun publikokoa edo pribatukoa, hondakinak desagerrarazteko eta balorizazio energetikoko eragiketak egiten dituena.

RC: Hondakinen baterako errausketarako instalazio baimendua, titulartasun publikokoa edo pribatukoa, hondakinak desagerrarazteko eta balorizazio energetikoko eragiketak egiten dituena.

e) Hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren karaktereak bulego kudeatzailean egindako inskripzioaren zenbaki sekuentzialarenak dira.

f) Hamahirugarren karakterea kontrol letra da.

Hiru. Subjektu pasiboek HIK bat eduki behar dute jarduera bakoitzeko, bai eta, behar denean, jarduera egiten duten establezimendu bakoitzeko ere.

Xedapen iragankorra. 2023ko apirilean mugaeguneratzen diren autolikidazioak aurkezteko epealdia luzatzea.

2023ko lehen hiruhilekoko 593 eredua 2023ko ekaineko lehen 25 egun naturaletan aurkeztu behar da, bai eta, behar denean, zerga zorra ordaindu ere.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko lehen hiruhilekoko autolikidazioetan aplikatuko da lehenengoz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 10a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

593 eredua. Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga. Autolikidazioa.

EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Egutegiko hiruhileko bakoitzean hondakinak zabortegietan uzteagatik, errausteagatik eta baterako errausketagatik sortzen diren kuoten autolikidazioa egin behar da.

1. AITORTZAILEA

Aitortzailea: aitortzailea hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren zergapekoen erroldan identifikatuta egon behar da hondakinaren identifikazio kodearekin (HIK). Baldintza hori betetzen ez badu, bere buruari alta eman beharko dio eredu hau aurkeztu aurretik.

10 gakoa, "HIK": autolikidazioaren establezimenduari dagokion hondakinaren identifikazio kodea ipini behar da.

2. EKITALDIA ETA LIKIDAZIO ALDIA

autolikidazioaren ekitaldia (UUUU) eta aldia (1H, 2HJ, 3H, 4H) zehaztu behar dira.

901 gakoa, "Ordezkoa": gako honen bidez adierazten da ekitaldi eta likidazioaldi bereko beste autolikidazio bat aurkeztu dela lehenago. Hala bada, (902) laukian aurreko autolikidazioaren zerbakia jarri behar da nahitaez.

3. LIKIDAZIOA

Likidazioaren eremuan likidazioaldian egindako kargapeko eta salbuetsi gabeko eragiketak agertu behar dira.

HIK (100): hondakindegia edo errauste edo baterako errauste instalazioaren identifikazio kodea; autolikidazioan zerbait establezimendu sartzen direnean soilik ipini behar da.

Zerga oinarria (101): hondakindegian utzitako edo erraustutako hondakin kopurua. Tona metrikoetan adierazi behar da, bi hamartarrekin.

Zerga tasa – kodea (102): autolikidazioa eragin duen eragiketaren identifikazio kodea; kodeen taula eranskin honen amaieran dago.

Zerga tasa - tasa (103): autolikidazioa eragin duen eragiketaren gaineko zerga tasa; tona metrikoko euroetan adierazi behar da.

Kuota osoa (104): (102) laukian aitortutako kopurua zerga tasaz (103) biderkatzearen emaitza. Zerbatekoa euroetan adierazi behar da, bi hamartarrekin.

Kuota osoa, guztira (36): (104) laukian aitortutako kopuruen batura. Zerbatekoa euroetan adierazi behar da, bi hamartarrekin.

Zerga zorra, guztira (40): (36) laukiko emaitza positiboa eta autolikidazioa epez kanpo aurkezteagatik ordaindu beharreko erreargua eta berandutze interesak (egonez gero) batu behar dira eta horren emaitzatik oraingo epealdi eta ekitaldi berei dagokien autolikidazio baten bidez lehenago sartutako kuota, autolikidazioa ordezkoa denean.

4. SALBUETSITAKO ERAGIKETAK

Hemen likidazio aldian egindako salbuesitako eragiketak azaldu behar dira, hondakinak utzi dituen bakoitzeko xehatuta.

HIK (120): hondakindegia edo errauste edo baterako errauste instalazioaren identifikazio kodea; autolikidazioan zenbait establezimendu sartzan direnean soilik ipini behar da.

Hondakinak utzi dituenaren IFZ (121): hondakindegian edo errauste edo baterako errauste instalazioan hondakinak utzi dituenaren identifikazio fiskaleko zenbakia.

Hondakinak utzi dituenaren izen-abizenak edo sozietate izena (122): hondakindegian edo errauste edo baterako errauste instalazioan hondakinak utzi dituenaren izen-abizenak edo sozietate izena.

Hondakin kopurua (123): hondakindegian utzitako edo erraustutako hondakin kopurua. Tona metrikoetan adierazi behar da, bi hamartarrekin.

Salbuespen mota (124): salbuespena identifikatu behar da taula honetako kodeen bitartez:

Salbuespena	Identifikazioa
7/2022 Legea, 89. artikulua, a) letra	EA
7/2022 Legea, 89. artikulua, b) letra	EB
7/2022 Legea, 89. artikulua, c) letra	EC
7/2022 Legea, 89. artikulua, d) letra	ED
7/2022 Legea, 89. artikulua, e) letra	EE
7/2022 Legea, 89. artikulua, f) letra	EF
2022/7 Legea, seigarren xedapen iragankorra.	EG

(102) LAUKIAN ("LIKIDAZIOA") JARRI BEHARREKO ERAGIKETA KODEEN TAULA

Kodea	Eragiketa mota	7/22 Legea	Zerga tasa
RA	Arriskurik gabeko udal hondakinak hondakindegian uztea	93.1a) 1.	40 euro tonako
RB	Udal hondakindegietako arriskurik gabeko errefusak hondakindegian uztea	93.1a) 2.	30 euro tonako
RC	Aurrekoak ez beste hondakin batzuk, aurretik tratamendurik aplikatu behar ez zaienak, arriskurik gabeko hondakinen hondakindegian uztea, oro har	93.1a) 3.1	15 euro tonako

Kodea	Eragiketa mota	7/22 Legea	Zerga tasa
RD	Aurrekoak ez beste hondakin batzuk, aurretik tratamendurik aplikatu behar ez zaienak, arriskurik gabeko hondakinen hondakindegian uztea, hondakin geldoak % 75etik gora badira, hondakin geldoagatik	93.1a) 3.2	3 euro tonako
RE	Aurrekoak ez beste hondakin batzuk, aurretik tratamendurik aplikatu behar ez zaienak, arriskurik gabeko hondakindegien hondakindegian uztea, hondakin geldoak % 75etik gora badira, hondakin geldoa ez beste guztiagatik	93.1a) 3.2	15 euro tonako
RF	Beste hondakin batzuk arriskurik gabeko hondakinen hondakindegian uztea, orokorrean	93.1a) 4.1	10 euro tonako
RG	Beste hondakin batzuk arriskurik gabeko hondakinen hondakindegian uztea, hondakin geldoak % 75etik gora badira, hondakin geldoagatik	93.1a) 4.2	1,5 euro tonako

RH	Beste hondakin batzuk arriskurik gabeko hondakinen hondakindegian uztea, hondakin geldoak % 75etik gora badira, hondakin geldoa ez beste guztiagatik	93.1a) 4.2	10 euro tonako
RI	Aurretik tratamendua aplikatu behar ez zaien hondakinak hondakin arriskutsuen hondakindegian uztea	93.1b) 1.	8 euro tonako
RJ	Beste hondakin batzuk hondakin arriskutsuen hondakindegian uztea	93.1b) 2.	5 euro tonako
RK	Aurretik tratamendua aplikatu behar ez zaien hondakinak hondakin geldoen hondakindegian uztea	93.1c) 1.	3 euro tonako
RL	Beste hondakin batzuk hondakin geldoen hondakindegian uztea	93.1c) 2.	1,5 euro tonako
RM	Udal hondakinak errausteko instalazioak, udal hondakinak ezabatzeko D10 eragiketak egiten dituztenak	93.1d) 1.	20 euro tonako
RN	Udal hondakinak errausteko instalazioak, udal hondakin errefusak ezabatzeko D10 eragiketak egiten dituztenak	93.1d) 2.	15 euro tonako
RO	Udal hondakinak errausteko instalazioak, aurrekoak ez beste hondakin batzuk ezabatzeko D10 eragiketak egiten dituztenak	93.1d) 3.	7 euro tonako
RP	Udal hondakinak errausteko instalazioak, udal hondakinekin energia sortzeko R01 eragiketak egiten dituztenak	93.1e) 1.	15 euro tonako
RQ	Udal hondakinak errausteko instalazioak, udal hondakin errefusekin energia sortzeko R01 eragiketak egiten dituztenak	93.1e) 2.	10 euro tonako
RR	Udal hondakinak errausteko instalazioak, aurrekoak ez beste hondakin batzuekin energia sortzeko R01 eragiketak egiten dituztenak	93.1e) 3.	4 euro tonako
RS	Udal hondakinak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 1.	20 euro tonako
RT	Udal hondakin errefusak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 2.	15 euro tonako

Kodea	Eragiketa mota	7/22 Legea	Zerga tasa
RU	Aurrekoak ez beste hondakin batzuk, R02, R03, R04, R05, R06, R07, R08, R09, R12, D08, D09, D13 ez D14 tratamendu eragiketa aplikatu behar ez zaienak, errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 3.	5 euro tonako
RV	Hondakin errefusak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 4.	3 euro tonako
RW	Baterako errausteta instalazioetan erraustutako hondakinak	93.1g)	0 euro tonako
RQ	Udal hondakinak errausteko instalazioak, udal hondakin errefusekin energia sortzeko R01 eragiketak egiten dituztenak	93.1e) 2.	10 euro tonako
RR	Udal hondakinak errausteko instalazioak, aurrekoak ez beste hondakin batzuekin energia sortzeko R01 eragiketak egiten dituztenak	93.1e) 3.	4 euro tonako
RS	Udal hondakinak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 1.	20 euro tonako
RT	Udal hondakin errefusak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 2.	15 euro tonako
RU	Aurrekoak ez beste hondakin batzuk, R02, R03, R04, R05, R06, R07, R08, R09, R12, D08, D09, D13 ez D14	93.1f) 3.	5 euro tonako

	tratamendu eragiketa aplikatu behar ez zaienak, errausteko beste instalazio batzuk		
RV	Hondakin errefusak errausteko beste instalazio batzuk	93.1f) 4.	3 euro tonako
RW	Baterako errausketa instalazioetan erraustutako hondakinak	93.1g)	0 euro tonako